



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Larunbata
2009-03-07

VIIURTEA.1647.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo aurkeztu zuen bere liburua; Euskaraz, galizieraz, katalanez eta gaztelaniaz kaleratu dute aldi berean. J. CARLOS RUIZ/AP

'ZAZPI ETXE FRANTZIAN' BERNARDO ATXAGAREN AZKEN ELEBERRIA

ASTEASU Ezkutuko salaketa egiten du abenturazko liburuan idazleak; Kongo Belgikarreko esklaboak ditu ardatz istorioak 6

Mikel Garmendia gaztea ere espetxeratu dute, ETArekin harremana duelakoan

VILLABONA Lazkaoko PSE-EEren egoitzaren aurkako eraso egiteko Manex Castrori ustez autoa uzteagatik hartu du erabakia Eloy Velasco epaileak 5

Banketxetako arduradunek krisiaren egoera aztertu dute

TOLOSALDEA Euren esanetan, «maileguak emateko baldintza berdinak ditugu orain» 2-3



Mota desberdinetako artelaneak isladatzen dute errealitatea. E. EZEIZA

8 artistek Hiesaren errealitatea gerturatzen dute

TOLOSA 'Hiesa: 8 artista, 8 hausnarketa' erakusketa ikusgai dago Aranburu jauregian 4

villabona
optika

aurtengo udan musutruk!

eguzkitako lente graduatuak *betaurreko graduatua egitean

Kale Berria 23A • Villabona • Tel.: 943 11 18 40

**E Elkarrizketa****JOSE ANTONIO AGIRRE** Tolosako Kutxako zuzendaria

Banketxeak Jende askoren ahotik banketxeen arduraz eta betebeharrak hitz egiten den garaian, euren lana zertan datzan azaltzen dute banketxeen langileek.

NEREA URBIZU

Jose Antonio Agirre Iza (Ordizia, 1958) Tolosako Kutxako zuzendaria da. Eguneko krisiaz mintzatu da, Kutxako ikuspegitik begiraturata gehienbat.

Non eta zergatik gaude krisi egoeran?

Nire ustez hau gertatu da: 1997-98 urteetan Asiako herrialdeek hazkunde modelo edo eredu aldatu egin zuten, kanpoaldera begira. Lehenago barneko eskaerei erantzuten zieten normalean, eta kapitalaren esportatzaile izatera pasa ziren, kanpoaldera. Lurralde garatuenean kapital hauek guztiak absorbitu zituen, eta hasiera batean teknologian inbertsioa finantzatzeko erabiliko zuten. Baina 2001ean, diru horiek etxebizitzetara bideratu zuten. Finantzaketa baldintzak mundu mailan, baita politika monetarioa ere, oso eskuzabalak ziren, laxoak. Honek hedapen azkarra ekarri zuen, batez ere, mundu mailako etxebizitzaren arloan.

AEBk, hala ere, zerikusia badu hasieran ere, ezta?

Noski. AEBko merkatuaren garpenera iritsi zen hedapen hau, eta batez ere «kaltetuagoak» zeuden estraktu sozialetara iritsi zen, hau da, mundu guztiak eros ezakeen etxebizitza bat politika honekin, interes oso baxuak zituzten, zabalze politika zegoen... Ondoren, merkatuaren hazkunde handi honek, hipoteken arriskuak bereizteari egin zion mesede, mundu mailan eta baita baldintza malaguegi-tan egin zituzten mailegu horiek eman zituen bankari ere. Beraz, ez zen ondo baloratu arriskua.

Asiaraino joan zara.

Bai, AEBtan lehertu dena aurretik dator, Asiatik, hain zuzen. Asiak AEBren eskaerei erantzun zien hazkunde eredu berria martxan jarri zutenean. Batez ere, eredu honekin AEBtara joan zen dena, eta handik beste lekuetara. Interes tipo oso baxuak jarri zituzten, arriskuak ez ziren kontrolatu, banketxeen balantzeak gainbaloratu zituzten... Eztanda egin zuen honek, 2005-2006ean. AEBn interesak igotzen hasi ziren orduan, etxebizitzaren prezioak jaisten hasi ziren eta krisi finantzarioa hasi zen horrela. Krisi ekonomikoa mundukoan bihurtu da gero: konfidantza falta, zor handiegia...

Lehenago erraztasunak ematen ziren kredituetan sartzeko. Orain zergatik ez?

«Banketxe guztiak ez daude berdin eta zaku berean sartu gaituzte»



N. URBIZU

Orain berdin egin daiteke, etxebizitza bat eros daiteke berdin, Kutxatik behintzat. Ez dugu arazorik mailegurik emateko, likidezia nahikoa badugu, egoera onenari erantzun artean gaude, solbentzia mailan ere. Bezero arruntak Kutxan maileguak eskura ditzake arazorik gabe. Konbenio batzuk sinatu ditugu, finantziarioa emateko bai enpresa batzuei eta baita partikularrei ere. Ez da kredituak ez direla ematen; gertatzen dena da, krisi ekonomikoaren eta finantzarioaren baldintzak aldatu direla. Orain egiten ari dena da, arriskuaren kontrol handiagoa izatea. Lehenago erraz ematen zena, orain parametro batzuen baitan ematen dira maileguak, baina normalean diren parametroak, ez bereziak. Bermea eta zorpeketa hartzen dira kontuan. Lan egonkorra duen pertsona eta berme normal batekin, Kutxan ez du arazorik mailegua lortzeko, eta hori horrela da. Beste banketxe batzuetan agian beste zerbait gertatzen da.

Beraz, ez duzue ezer aldatu?

Ez, gertatzen dena da, orain gehiago kontrolatzen direla kontu horiek, arriskuarena eta bermearena.

Egoera normal batean egingo litzatekeena, hain zuzen. Orain arazo egoera ez zen normala. Etxebizitza batean sartzean edo kotxe bat erostean baldintza onak dauzkagu mailegua emateko. Beste alde batetik, bezeroak baldintza batzuk betetzen baditu (bermea eta zorpeketa), eman egiten da.

Jendeak ez badu mailegurik, baldintzak betetzen ez dituelako da?

Banketxearen aldetik arazorik ez dago: beste faktore bat dago ere. Esaten da banketxeek ez dugula krediturik ematen, baina jendeak ez du eskatzen, ez dator eskatzerara. Beste gauza bat da lanik gabe badago, baina pertsona horri ez zaio emango eta lehenago ere ez zitzaion eman. Lehenago malguagoak ginen agian, baina argi dago ezin zaiola kreditu bat eman lanik gabe dagoen bati. Baina ez dira eskatzen. Kontsumoa asko jaitsi da eta etxebizitzaren salmenta dago, dagoen bezala.

Zer da bezero fidagarri bat?

Banka errenazional deitzen dena egiten dugu: bezeroaren eta Kutxako langilearen arteko harreman hori. Konfidantza bat dago azken batean euren artean: beha-

rrak ezagutzen dira eta mailegua behar duenean, guk bezero horren profila ikusten dugu, dena hari egokituz.

Nork eman behar du lehen pausoa ekonomia mugitzen hasteko?

Gobernuak, horretan ari dira: likidezia banketxei ematen hasi dira. Baina ikusten denez, hori baino gehiago, emandako diru hauek baldintza batzuk bete behar dituzte, eta hori agian ez da betetzen. Zati bat ekonomiaraino joan behar da, kontsumoa bultzatu behar baita. Bestela ekonomiaraino martxa gelditu egingo da. Dena den, Gobernuak erabakia honen inguruan hartzea oso zaila izango da, halako egoeran ez baikara inoiz egon. Kutxa Gobernuak egindako bi substatara joan da eta eskainitako baldintzak oso onak zirenez, hartu dugu, baina ez behar dugulako, datuak begiratzea besterik ez da.

Gobernuak utzitako diru hori zergatik ez da bezeroen eskuetara askotan joaten?

Banketxe askok diru hau jaso dute (Europa eta AEB mailan) baina aurrena beraien balantzean seneatu dituzte: dirua banketxean gelditu da eta ez da kanpora atera. Hor

dago arazoa. Gobernuak dirua ematen du balantzeak saneatzeko eta dirua bezeroari emateko, kontsumoa bultzatzeko; hau ez da gure kasua).

Arazoa non dago orduan?

Jendeak ez du krediturik eskatzen: krisi finantzarioa dago, bai, baina bezeroek ez dute eskatzen. Gobernuak eman behar du lehen pausoa utzitako diru hori kontrolatzeko eta gero geroakoak. Kontsumoa mugitu egin behar da; orain bertan katea moztuta dago.

Jendearentzat kontraesankorra da: dirua uzten dizuzte baina ez dugu dirurik ikusten.

Oso zaila da ulertzen, baina betidanik bankuen artean, banketxearen batek dirua behar zuenean bankuen barruko merkatu arazo eta utzi egiten zituzten; gero diru hori bultzatu behar da, noski. Merkatu honetaz gain, beste parte-hartze batzuk egin dira, jendeari dirua utzi ahal izateko. Orain, Gobernuak dirua utzi dute eta horrek inbalantzeak ari dira kuadratzeko banketxe askotan, hain zuzen.

Euskal Herriko banketxeen egoera ez da hain txarra?

Kutxari dagokionez ez dago batez arazorik, ez solbentziarik ezta likideziarik dagokionez. Kontua da merkatua geldirik dagoela eta jendeak ez du krediturik eskatzen. Prentsa informatu egin behar du, bere lana delako, baina banketxe guztiak ez daude egoera berdinean eta zaku berean sartu gaituzte. Itxi diren banketxeak egoera txarrean zeudelako itxi ziren. Espainia mailan, gainera, zorrotzagoak izan dira kredituak emateko arazo eta horregatik egoera ez da besteetan bezain txarra. Mediterraneo aldean daudenak okerrago daude. Bezeroak baloratu behar du non duen dirua eta nola dagoen bere banketxea.

Banketxeen irabaziak eman ziren ezagutzera urtarrian. Irabaziak ziren, ezta?

Bai, handiak. Kutxak 2007an baino irabazi gutxiago izan zituen, krisiarengatik, %30ean. Zenbaki oso altuak dira, baina diru kopuru handiak mugitzen dira banketxeetan. Diru asko mugitzen baduzu eta tarte txikiarekin, zifra oso altuak ateratzen dira baina oso tarte txikiarekin.

Jende asko dago ezin iritsi?

Kutxan, behintzat, ez, uze honetan %1,80ko beranork kopurua dauka, oso baxua da hori, gauzak ez ditugulako hain gaizki egin. Bestela ere erraztasunak ematen dira. Baina ez da egoera berri bat.

Bezeroak zuekiko deskonfiantza dauka.

Kutxaren datuak ematen ditut niri bezero bat etortzen zaidanean; bezeroak jakin behar du non duen bere dirua. Kutxak dirua dauka eta solbentzia aldetik ez du arazorik. Baina jendeak ez ditu orain maileguak eskatzen. Ez du ezta fusionatzeko beharrik ere izan, berak bakarrik lasai asko funtzionatzen du.



E Elkarrizketa

MARIAJE BENGOTXEA ETA EDORTA AUDIKANA Euskadiko Kutzako Tolosako zuzendariak

«Mailegu gutxiago ematen ari gara baina jendearen aldetik eskaera izugarri jaitsi da»

Banketxeak » Krisi ekonomikoa eta finantzieroa bizi dugu garai hauetan eta banketxeak paper garrantzitsua betetzen du gizartean, are gehiago garai hauetan.

NEREA URBIZU

Tolosako Euskadiko Kutzako zuzendariak Edorta Audikana (Andoain, 1962) eta Maria Jesus Bengotxea dira (Zubieta, 1965). Duela hiru urte Mariaje Bengotxeak zuzendari lanetan dihardu Tolosan, baina Euskadiko Kutzan duela 26 urte hasi zen. Bitartean, Edorta Audikanak hiru hilabete daramatza lanpostu horretan zuzendari baina, hala ere, 20 urte daramatza Euskadiko Kutzan lanean. Krisiaren eraginaz aritu dira hitz egiten bi zuzendariak.

Zuen hitzetan nolatan iritsi gara krisi egoera honetara?

Krisi ekonomikoa, finantzarioa, eta beste arlo askotakoa da; eremu askotatik dator. Ez da bakarrik enpresak edo bankuak dirurik gabe daudela; alde batetik globalizazio-agatik, banku askok zorrak banatu egin dituzte mundu osoan zehar. Estatu Batuetako banketxe asko eta asko espezializatutako banketxeak dira. Hauetako batzuen espezializazioa hipotekena zen, eta hipoteka hauek eman ahal izateko diru sarerak behar zituzten. Horretarako, beraien hipoteka asko bonoetan banatu zituzten (pakete desberdinak bailiran) eta bono hauek mundu guztiko instituzio finantzarioetan zehar saldu zituzten, horretarako interes erakargarri bat eskainiz. Bono hauen garrantiak hipotekak eta hauen atzean zeuden etxeak ziren. Gainera, urte askotan etxeen balorazioa gorantz zihonan.

Eta ondorengo pausoa zein zen? Ameriketako Estatu Batuetako ekonomia okertzen hasi zen, etxebizitzaren balio asko jaitsi zen eta era



N. URBIZU

berean langabezia igo. Langabeziaren ondorio zuzen bat, hipoteken morositatearen hazkundea izan zen. Banketxeak etxeekin galditzen hasi ziren, baina etxe hauek jadanik ez zuten lehengo balioa. Segidan, aurrez aipaturiko bonoen balioa ikaragarri jaitsi zen, kasu batzuetan zero izan arte. Bono horiek mundu osoko banketxeetan banatuta zeudenez, banketxe hauei kalte handiak eragin zituzkien. **Eta ez ziren horretaz lehenago enteratu?**

Badirudi ezetz. Urte luzeetan etxebizitzek gora eta gora egin dute eta ez zen horrelakorik espero. Orain arte dena ondo zihonan, horregatik.

Bat bateko gauza izan da, beraz? Urteetan zehar oso ondo funtzionatu du sistema honek, baina ekonomiak porrot egin zuen. Aurrez aipatu dugun globalizazioaren eraginez mundu osoko banketxe-etara hedatu da likidezia falta.

Euskadiko Kutzak maileguak

ematen jarraitzen du, normaltasunez?

Bai, beti bezala eta baldintza berdinak eskatuz. Gure politika beti izan da nahiko kontserbadorea eta horrek onurak ekarri dizkigu. Egia da mailegu gutxiago ematen ari garela, baina eskaera kopurua izugarri jaitsi da; hauxe da maileguen jaitsieraren arrazoi nagusia. Euskadiko Kutzaren kasuan kaudimen (solbentzia) arazorik ez dugu, baina egon badaude beste banketxe batzuk, agian likidezia arazo gehiago dutelako edo, maileguak emateko baldintzak aldatu dituztenak.

Orduan non du hasiera krisiak? Agian gehiegizko hazkunderaren ondorio latza da krisi hau. Kontsumoa, produktzioa, etxebizitzaren eraikuntza, ... denek egin dute etengabeko gorakada izugarria. Lehenengo lehertu dena eraikuntza arloa izan da. Gure ekonomia-erantzutza handi bat arlo honetan oinarrituta dago, bai zuzene-

an, edota zeharka. Zeharkakoan, langabezia, kontsumoaren jaitsiera eta abar bilduko genituzke. Orain jendeak beldurra du.

Baina edukitzea da.

Bai, egoera ez da batere ona, baina gure ustez, komunikabideek bul-tzatuta edo, memento batzuetan beldurra, paniko edo izua ere bihurtu da.

Eta nork eman behar du lehen pausoa?

Hori jakitea oso zaila da eta teoria asko daude. Argi dago Gobernuak zerbait egin behar duela, baina zer? Nahikoa izango al dasisteman dirua injektatzearekin? Alde batetik, nori eman behar dizkio laguntzak, biztanleei zuzenean, edo beste instituzio batzuen bidez? Badago sistema osoa errotik aldatu behar dela esaten duenik ere. Beste alde batetik, bakoitzak gure aldetik ere zerbait egiten saiatu behar harko gure, gutxiagorekin konformatu esate baterako. Agian, orain arteko hazkunde tasak ere ez

ziren normalak, ekonomia bat batean geratu dela ematen du, eta horrekin batera kontsumoa etabar ere bai.

Zein da zuentzat bezero fidagarri bat? Berme bat beharko duzue bezeroaren aldetik.

Guk bezeroekin konpromiso bat hartzen dugu eta bezeroek gurekin ere bai (mailegu bat ordaintzea adibidez). Konpromiso hori bete-tzeko asmoa duena eta horretarako arazorik edukiko ez duena da «bezero fidagarria».

Nola azaldu jendeari utzitako diru hori zergatik ez den ematen hain erraz?

Espainiako Gobernuak diru bat utzi die banketxeei. Diru hori mai-

Egoera honen aurrean badago gure sistema osoa errotik aldatu behar dela esaten duenik ere

legu formatuan izan da, hau da, bueltatzeko (beraz, injektio zuzenik ez da oraindik eman). Gobernuari ere galdetu beharko diogu, ea zergatik ez zaion dirua zuzenean jendeari ematen banketxeei eman beharrean, azken hau enpresa pribatua izanik. Guk (Euskadiko Kutzak) aurreko aldiari partida bat hartu genuen, interesa erakargarria iruditu zitzaigulako. Baina gure kaudimen maila oso altua da (publikatutako datuek ere hala erakusten dute).

2008. urteari dagozkion banketxeen datuak eman zituzten urtarirlean eta irabaziak zeuden, baina jendeak ez ditu maileguak hain erraz lortzen.

Gure maileguak emateko filosofia ez da inoiz aldatu. Aurreko urteetako baldintza berberak eskatzen ditugu: Mailegua, bueltatzeko gaitasuna duenari, bai orain urte batzuk bai orain, emango zaio. Hori guri dagokigunez; badakigu badaudela banketxeak, beste egoera batean daudenak.

@ Etabaida. Krisi egoeran gaude. Zuk zertan nabaritzen duzu hori? Nola egin ahal zaio aurre eguneroko bizitzan? Zer da gehien eragiten dizuna? edo, nork irabaziko du Pilotako Binakako Txapelketa? Halako etabaidak eta inkestak aurkituko dituzue gure webgunean. Dagoeneko erantzun batzuk badaude, baina beste askorentzako lekua ere bada. Anima zaitete eta eman zure iritzia, besteena ere zein den irakurtzen duzun bitartean!

www.tolosaldeko-hitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainen banaketa antolatzea eta haien jarraipena egitea izango da.

Eskaintzen da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzateko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

Eskatzen da:

- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutzak.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako erantzutasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialean eskarmentua izatea baloratu da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak Saila) Martin Ugaldel Kultur Parkean, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatzea ADMINISTRARI KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)

Hiesaren errealitatea zortzi artisten begietatik ikusita, Aranburun

Tolosa » Medicusmundi elkarteak antolatuta 'Hiesa: 8 artista, 8 hausnarketa, 8 hausnarketa' erakusketa ikusgai da hurrengo asteetan.

ERREDAKZIOA

Medicusmundi elkarteak antolatuta, atzotik ikusgai da Aranburu jauregian *Hiesa: 8 artista, 8 hausnarketa* erakusketa. Bertan zortzi artistek GIB/hiesak pertsona txi-roengan eragiten duen errealitatea deskribatzeko lengoia berriki erabili dituzte.

Medicusmundi Gipuzkoa elkarteak Tolosan ekitaldia ugari antolatu ditu bertako jendea mundu mailan GIB/hiesarekin amaitzeko irtenbide globalak hartzearen beharri buruz sentsibilizatzeko. Elkarteak bere lana Tolosako biztanlegoari orokorrean eta bereziki eskoletakoei zuzentzea erabaki du. Bigarren publiko honi, eta bereziki DBHko ikasleei dago zuzenduta Tolosako Kultur Etxean hilaren 16an eta 17an egingo diren *Historias Producidas*-en proiektzioak. Laburmetrai honek Afrikako, Indiako eta Hegoamerikako epidemiaren errealitatea modu originalen azaltzen du.

Ekintza horiek, hurrengo hilabetetan Gipuzkoako beste herriak bisitatuko dituztenak, posibleak dira GIB/hiesaren gaiaren inguruko pertsona desberdinen, artisten, zinelarien eta adituen konpromisoari esker, epidemiak mundu mailan planteatzen dituen erron-



Zortzi artisten lanak bildu dituzte Aranburu jauregian. E. EZEIZA

kei erantzuteko beharra ikusten baitute. Bere helburua biztanleria egoeraren analisi kritikoa egitera eta arazoaren soluzioan parte hartzea bultzatzea da, GIBa pertsona guztien parte hartuko duten mundu mailako esku-hartzea behar duen mundu mailako larrialdia baita.

Egoera, oraindik larria da

Orain 25 urte azaldu ziren GIB/hieseko lehen kasuak. Orain berriz, gaixotasuna mundu mailako epidemia bihurtu da. Egunero, 6.800 pertsona baino gehiagok hartzen dute infekzioa eta 5.700 baino gehiago hiltzen dira gaixotasunagatik. Heriotza eta infekzio berri horien gehiengo handia Hegoaldeko herrialdeetan gertatzen dira, aipatutako lurraldeen garapenean eragin negatiboa duelarik.



Mota eta estilo guztietako artelaren bitartez isladatzen dute errealitatea. E. E.

Egun GIBarekin bizi diren ia 40 milioi pertsonen %95 herrialde pobreetan bizi dira. Gehiengoa, %65, Afrikan dago.

Kasu horien gehiengoa, GIB/hiesarengatik infekzio eta

heriotzera, prebentzio eta tratamendu zerbitzuetara iristeko zailtasunengatik gertatzen dira. Gaixotasuna tratatzeko botikeren prezio altuak oztopo garrantzitsuenetakoa dira.

Emakumearen eguneko aldarriak hasita

GIZARTEA » Emakumearen Nazioarteko eguna da bihar, eta aldarriak egun honekin lotuta hainbat ekitaldi ari dira gauzatzen egun hauetan. Laskoraing 40 ikasle inguru bildu ziren ikastolaren aurrean elkarretaratzea egiteko, *Patriarkatua! Txikitui! lotu independentziara!* lelopean. Bestalde, Josebe Iturrioz Udaleko Bertintasunerako teknikariak hitzaldia eskani zuen Topagunean. Gaur, ekitaldiekin jarraituz, Tolosan, Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea egingo dute 19:30ean San Frantzisko elizaren aurrean, 21:00aldera berriz, afaria izango da Oargi elkartearen. Hernalden, berriz, herriko emakumeen afaria antolatu dute, urtero bezala. 21:00etan izango da, Hernaldeko Elketa Jatetxean. HITZA/E. EZEIZA



Laburrak

Orion jokatu da gaur Batelen ligako estropada

TOLOSA » Batelen liga ari da jokatzen azken asteburuetan, eta bertan ari dira lehiatzeko, Tolosaldeko Arraun Klubeko arraunlariak. Hasiara batean, gaur jokatu behar zuten laugarren jardunaldia Mutrikin, baina azkenean Orion egitea erabaki dute. Estropadak 12:00etan hasiko dira.

GPSari buruzko ikastaroa antolatu du berriro Oargi

TOLOSA » Oargi elkarteak GPS ikastaroa antolatu du hilaren azken asterako. Jende askok izena eman duela ikusita lehendabizikoan, beste bat egitea erabaki dute. Saioak elkartean bertan izango dira, hilaren 23tik 28ra bitartean. bertan ondorengo gaiak jorratuko dira: GPS motak eta erabilera, bide bat jarraitu eta egindakoa gordeztea, Track, waypoint, orieplorera eta ordenagailua, podometroa. Izena ematea 688698642 (arratsaldeko seiretatik aurrera) edo info@oargi.org helbidera mezua idatzita egin daiteke. Hau hilaren 20a bitartean egin daiteke.

Gorbeara irteera antolatu du Alpino Uzturrek

TOLOSA » Alpino Uzturre elkarteak martxoaren 15erako mendi irteera bat antolatu du. Txangoa Zaraten hasi eta Ubidean bukatuko da. Gorbeara (1.481 metro) mendia igoko dute. Iraupena bost ordu eta erdiko da. Autobusa Santa Klaratik 07:30ean abiatuko da. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 13. Izenemateak elkartean bertan egin daitezke, edo 943 65 27 89 telefono zenbakira deituta nahiz, alpinouzturre@hotmail.com helbidean.

Oteizaren erakusketara bisita gidatua, gaur

TOLOSA » Jorge Oteiza oroitzeko antolatu dituzten ekimenen baitan, gaur Iñaki Epelderen eskutik bisita gidatua izango da Aranburu jauregian ikusgai den erakusketa zehar. 12:00etan izango da hau. Hala ere, gaur joan ezin dutenentzat hilaren 14an berriro ere horretarako aukera izango da.

'El intercambio' filma ikusgai, asteburuan

VILLABONA » Asteburu honetan, Gurea antzokian bi film ikusteko aukera izango da. Alde batetik, gaur eta bihar 17:00etan, haurrei zuzenduta, *El Valiente Desperaux* eskainiko da. Bestalde, gaur eta bihar 19:30etik aurrera, Clint Eastwood zuzendariaren *El intercambio* filma izango da ikusgai. Baita, gaur 22:30ean eta astelehenean 21:30ean ere. Azken hau ikuslearen eguna da.

Afizionatu mailako onenak eskualdean

Aiztondo » Larrauldik hasi eta Alkizan amaituko da bihar jokoan izango den afizionatuentzako VI. Aiztondo Klasikoa.

IMANOL GARCIA

Asteasuko Aiztondo Txirrindulari elkarteak VI. Aiztondo Klasikoa antolatu du. Bihar lehiatuko dira afizionatu mailan lehiatzen diren txirrindulari onenak. Guztira 28 talde ariko dira eta bakoitzetik zazpi txirrindularik parte hartuko dute. Eskualdeko Belca taldeaz gain, beste talde euskaldun batzuk ariko dira lehian: Seguros Bilbao, Cafes Baque, Caja Rural, Lizarte eta Afysa.

IBILBIDEARI DAGOKIONEZ, ohi bezala, urtero irteera-herria eta helmuga-herria aldatu egiten dira. Aurtengoan Larrauldik abiatuko da proba eta Alkizan amaituko da. Guztira 148,2 kilometro izango dira eta aurtun berritasun garrantzitsua izango da. Sarasola sagardotegiko mendatea igoko dute, 800 metrotako igoera %20ko maldadun tarteekin.

Antolatzaileek azaldu dutenez, igoera horretan erabakiko da ziu-



Aiztondo Klasikoa bailarako herrietatik zehar igarotzen da. NEREA LIZARTZA

rrenik biharko Klasikoa. Gogorra izateaz gain, helmugatik 20 kilometro baino gutxiago dago eta Klasikoa irabaztera doazenak aldapa hori erabiliko dute ziurrenik abantaila hartzeko. Eskalatzaileentzako aproposa dela aurtengo proba esan dute antolatzaileek. Izan ere, Sarasola sagardotegiko

aldapa horretaz gain, beste hainbat mendate igobeharko dituzte: Alkizako mendatea bi aldiz, 50 kilometroan eta helmugara iristean, eta Adunako mendatea sei aldiz.

Esan bezala, Larrauldik aterako da proba. 10:00ak inguruan aterako da eta espero da Alkizan 13:30ak inguruan amaitzea. Tartean, Ordi-

ziaraino joan-itzulia egingo dute eta gero Aiztondo bailaran sei itzuli egingo dituzte. Lehenengo bos-tak berdinak izango dira eta azkenengoan Anoetaraino joango dira eta handik Sarasola sagardotegi aldera joango dira. Txirrindularitza ikuskizun ederra, beraz, Aiztondokoek prestatu dutena biharko.

Laburrak

Kultura laguntzailearen ordezkapenerako deialdia

IRURA » Udak pertsona bat kontratatu behar du kultura laguntzaile lanetarako. Bere zereginak goizetan kultura eta arratsaldetan agenda 21eko udal espedienteak kudeatzea eta gazteak dinamizatzea izango dira. Kontratuak iraungo du oraingo kultura laguntzailearen amatasun baimena bukatu arte. Interesatuak kurrikuluma aurkez dezakete udaletxean hilaren 10a arte.

2.100 euroko isuna lizartzar bati Otaola «iraintzeagatik»

LIZARTZA » Donostiako epaile batek 2.100 euroko isuna ezarri dio Lizartzako bizilagun bati Regina Otaolak jarritako salaketaren ondorioz. Alkateak esandakoaren arabera, bizilagun horrek 2007ko irailaren 7an «Otaola, a zer kabroia zaren!» zioen kartela erakutsi zuen herriko plazan Otaolaren «duintasuna kaltetuz», epailaren hitzetan. Epaileak kartela erakutsi izana «larritzat» jo du hau «gatazka politiko baten erdian, alkateari zuzendutako mehatzuko oihuen eta banderaren altxatzearekin bat egin zuen intentsitate bereziko une batean» izan zirelako.

Mikel Garmendia espetxeratu dute ETArekin kolaboratzea leporatuta

Villabona » Atzo ezker abertzaleak aurkeztutako mozioa onartu zuten eta herritar ugari bildu ziren manifestazioan.

ERREDAKZIOA

Mikel Garmendia billabonatarra Soto del Realen espetxeratu zuten atzo eguerdian Espainiako Auzidantza Nazionalen epailearen aurretik pasatu eta gero. ETArekin kolaboratzea leporatu diote. Manex Castro atxilotu ondoren, asteazkenean atxilotu zuen Ertzaintzak Villabonan eta ia bi egun eman ditu inkomunikatuta.

Villabonan Manex Castro eta Mikel Garmendiaren atxilotetako salatzeako atzo mozioa aurkeztu zuen ezker abertzaleak eta eskualdeko manifestazioa egin zen. Osoko bilkuran ezker abertzaleko 6 zinegotziak izan ziren bakarrik eta mozioa onartu zuten aho batez. Herritar ugari bildu zen batzar aretoan eta txalo zaparrada izan zen mozioa onartutakoan, «Manex eta Mikeli elkartsuna adierazteko».

Idatzirekin, Udalbatzak gogor salatu nahi izan du inkomunika-



Ezker abertzaleak aurkeztutako mozioa irakurtzen, atzo, udaletxean. I.G.



Eskualdeko manifestazioan herritar ugari parte hartu zuten. I. GARCIA

zioa. Beraien ustetan, inkomunikazioak tortura ahalbildetzen baitu. Bestalde, EAJ alderdiaren jarriera ere kritikatu zuten «Ertzaintzak bete beharreko protokoloa hainbatetan goratu duena, beste poliziek in desberdinak zirela saldu nahirik, bertan behera utzi duenean 3 urteren ondoren, Manex eta Mikel torturatuak izateko arriskuan jarri» gaineratu zuten.

Mozio honekin, elkartsuna eta babesa adierazi nahi izan diete bi billabonatarren senide eta lagunei. Eta Castro nahiz Garmendiak herri mugimenduan egindako lana goraipatu zuten.

Villabonako EAJ alderdiko zinegotzietan berezia eginen zaie, Ertzaintzaren inguruan gogoeta sakona egiteko. Garbi adierazi nahi dute ere Udalekoek, «herri honek bizi duen gatazka politikoa ez dela inolaz ere ezker abertzalearen aurka modu guztietako erasoak eginen konponduko». Honekin lotuta, Ertzaintzaren arduradun politikoei gogoeta egitera deitzen diete eta «Balzaren eta Bakartxoaren dimisioa eskatzen dugu».

Eskualdeko manifestazioan, ehunka lagunek parte hartu zuten atzo arratsaldean Manex eta Mikel, herria zuekin lelopean.

Zurea da hitza info

Bakartxo, Balza, dimisioa orain!

VILLABONAKO HERRITAR TALDE BATEK

Non eduki dituzue bahituak Mikel eta Manex?

Mikel eta Manex maite zaituztegu!

Villabonako herritar multzo batek Bakartxo Tejeriaren dimisioa Eusko Legebiltzarreko kide bezala bai eta Villabonako zinegotzi bezala eskatzen dugu eta bide batez, eta gaurko plenoan Ertzaintzaren tortura kasuen inguruko argibideak eskatzen dizkiogu. Bere alderdiaren polizia politikoa den neurrian erantzukizun zuzenak eskatuz.

ARAMBURU

Alokatzeko (Tolosa), Etxeak, Allirin, Larramendin eta San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean eta Batxilerraldian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa), Etxebizitzak, Kale Nagusian, Araba etorbidean, Batxilerraldian.
Salgai (Legorreta eta Iruran), Etxebizitza eraberritzeko, Legorretan 32.000.000 pztz eta Iruran 20.000.000 pztz.
Salgai (Irura), Etxebizitza sartzeko moduan. Eskaintza ona.
Salgai, Garaje itxiak eta irekiak. Amarotzen (Tolosa) eta Ibarren.
943 65 17 13 / 677 46 09 16



Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean aurkeztu zuen Bernardo Atxagak bere azken lana. JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

Ez kutuko salaketa egin du Bernardo Atxagak bere azken eleberrian

Asteasu » Kongo Belgikarrek esklaboak ditu ardatz 'Zazpi etxe Frantzian' abenturazko eleberriak.

REBEKA CALVO

Ikusmin handia sortu zuen atzokoan Bernardo Atxaga idazle asteasuarraren azken eleberriaren aurkezpenak.

Donostiako Koldo Mitxelena kulturunea hautatu zuen, beste behin ere, *Zazpi etxe Frantzian* liburua aurkezteko, izan ere aurreko liburu batzuk ere bertan aurkeztu izan ditu «zorte ona» ematen omen dio eta. Aurkezpenean idazleak Frantziako Lopez Landatxe KMko zuzendaria eta Pamiela argitaletxeko Jose Angel Irigaray izan zituen ondoan.

Irigarayren hitzetan azken lan honekin «salto kualitatibo» eman du Atxagak bere ibilbidean eta la-

naren argumentua Afrikan, Kongo, kokatu badu ere, «Euskal Herrian ere kokatu» zitekeela esan zuen.

Salaketa lana da *Zazpi etxe Frantzian*, ezkutukoa bada ere. Idazleak ez du salaketa zuzenetan sinesten, orain ez behintzat. «Irakurleari pentsatu arazi egin nahi diot, irakurlea joan dadila liburuan aurrera, abenturatan murgilduta, baina, bat batean bira dezala orria atzera eta pentsatu: zer esan du hemen?», esan zuen asteasuarrak. Helburua bidegabekeriaren inguruan hitz egitea dela ere azpimarratu zuen idazleak.

Chysostome Liège

Kongo Belgikarrean kokatzen den Chysostome Liège protagonistatzat duen abentura honetan orain bi urte hasi zen lanean eta Nevdan (AEB) idatzi du. Baina arra atzeagotik dator, 22 urterekin Madrilén soldaduska egiten ari zela; Espainiako plazan munduko go-

searen kontra ari ziren gazte talde bat topatu zuen, gerturatu, eta bakarrik geratu zen. Horren harira hasi zen liburu honetako helburua garatzen; bidegabekeriak ezkutuko moduan salatzearena. «Nola li-teke gai sakonen aurrean jendeak horrenbesteko axolagabetasuna agertzea?», galdetu zuen.

Bidegabekeriak salatzeke, hortaz, modu ez zuzena hautatu du

eta umore beltza ere atzeman daiteke. Baina, funtsean liburuan abenturabat kontatzen da, Kongo esklabo beltzera, hain zuzen. Eta historiaren atzean, gainera, basakeri ikaragarria ere uzten du idazleak agerian.

XX. mende hasierara egiten du salto, non belgikarren destakamendu militarra dagoen eta hango beltz guztiak esklaboak diren. Marfila, kautxua eta kaoba ateratzen dute esklabo hauek. Ihes egiten saiatzen diren esklaboak tiroz akabatzen dituzte eta eskuak moztzen dizkiete, ondoren esku horiek destakamendu nagusira bidali eta bertan kartutxoak nola xahutu dituzten erakusteko, izan ere kartutxoak mugatuak dituzte.

Abentura Afrikan kokatzen prentsaurrekora gerturatutako batzuek Joseph Conrad idazlea aipatu zioten, baina lana egiterako garaian beste erreferentzia batzuk izan ditu kontutan Atxagak; Jonathan Swift idazle irlandarra eta Ambrose Bierce estatubatuarra.

Sei urte inguru eleberririk gabe

Sei urte inguru itxaron behar izan ditu irakurleak Atxagaren nobela berria eskuratzeko. Aurrekoa *Soi-nujolearen semea* izan zen eta gero ere bere beste bi altxor kaleratu ditu, *Lekuak* eta *Markak. Gernika 1937*, hain zuzen, nahiz eta liburu hauek beste plano batean koka daitezkeen; lehena saiakera eta ipuinak batzen dituen bilduma da eta saiakera zein lekukotasunak jasotzen dituen, bestea.

Aipatu behar da, era berean, *Zazpi etxe Frantzian* aldi berean euskaraz, galizieraz, katalanez eta gaztelaniaz argitaratu dutela, nahiz eta aurki portugesea ere itzuliko duten. Etorkizunean beste hizkuntzetara itzultzea ere ez dute bazterzen.



Liburuaren irudia inprimategitik liburu-dendetara atera aurretik. PAMIELA

Hitzaldi ugari antolatu dituzte Aste Misiolariaren barruan

Ibarra » Hilaren 13an hasiko dute astea eta 23an bukatuko da; egitasmo desberdinen berri emango dute.

ERREDAKZIOA

Ibarratik Misisio Taldeak ekimen ugari antolatu ditu Aste Misiolariaren barruan.

Urtero egiten duten moduan hitzaldi eta ekitaldi ugari antolatu dituzte datorren ostirala, hilak 13, hasi eta hilak 23 bitarte. Ekitaldi hauei esker «Hirugarren Munduan bizi diren senide behartsuekiko sentiberatasuna bizkortu eta zabaltzeko» helburua dute. Herrian «hazi solidarioa eriteko» asmoa ere badute Ibarratik Misisio Taldeko kideek.

Horiek horrela, hilaren 13an 20:30ean Elkartasun Afaria egingo dute parrokiako lokaletan eta tike-tak (10 euro) ohiko puntuetan eskuratu ahal izango direla esan dute.

Hilaren 17an, aldiz, Rosario Beribenek *Eutsi* izeneko egitasmoa aurkeztuko du 20:00etatik aurrera, hau da Caritas-ek etxerik gabeko pertsonentzat duen proiektu berria.

Proyde-Proega GKEa

Hilaren 18an 20:00etan Aitor Zulaikak eta Eder Pikazak Proyde-Proega Gobernu Kanpoko Erakundearekin Argentinan izandako esperientziaren berri emango dute.

Azken ekitaldia hilaren 23an izango da 20:00etatik aurrera. Zehazki, Marcelino Arias, Ekuadorreko Baba herriko biztanleak Ibarrrako Izaskun Azurmendirekin batera egindako lanaren inguruko esperientzia azalduko du. Hitzaldi guztiak parrokiako lokaletan izango dira.

Eraberean, Aste Misiolaria irauten duen bitartean Meza Nagusia ere egongo da, hilaren 19an izango da 11:00etan herriko San Bartolome parrokiaren eta herriar guztiei bertaratzeko gonbita luzatu die Misiolari Taldeak.

Hilberria

LUXIA ALBIZU APAOLAZA

(Mariaren Bihotza komunitateko lekaima)

Senideak: Felix (?), Juan, Patxi, Iñaki, Margari, Joxepa eta Jabier. Ezkon senideak: Gertrudis Izagirre (?), Dolores Mujika, Mari Karmen Ziardegi, Isidro Arrondo, Laureano Telleria eta Maixabel Telleria. Iloba, lehengusu eta senditarrak.

Hileta elizkizuna: Tolosako Sakramentuen Parrokian, GAUR, LARUNBATA, eguerdiko HAMABIETAN.



SEGURA
2009ko
martxoaren 7a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Harri-jasotzaileak Etxauriko harria altxatzen saiatuko dira. INIGO URIZ/ARGAZKI PRESS

Urrutia, Irigoien eta Bertiz Etxauriko harria altxatzen saiatuko dira

Leitza » Urrutiak 9 jasoaldi emanak dizkio 136,5 kiloko harri baldarrari, nahiz eta iaz 6ean gelditu behar izan zuen.

ASIER IMAZ

Josetxo Urrutia leitzarria aurten ere Etxaurin egongo da martxoaren 29an, igandean, 12:30ean.

Alberto Lakosta zenaren oroimenez, Etxauriko aintzineko harriarekin, herri kirol proba egingo dute hilaren azken igandean Nafarroako herrixka honetan.

Urrutiarekin batera Unai Bertiz

eta Haimar Irigoien harri-jasotzaileak ariko dira 136,5 kiloko harri baldarra sorbaldan berdindu nahian.

Harri-jasotzaile bakoitzak bost minutuko denbora edukiko du, denbora horretan harriari ahalik eta jasoaldi gehien ematen saiatuko dira.

Urrutia iazko txapelduna

VI. Etxauriko Harriaren Jasoaldian iazko emaitza lortzen saiatuko da Josetxo Urrutia, nahiz eta aurten Irigoien presentziarik ez izan. V. edizioan leitzarrik harri baldarrari 6 jasoaldi eman zizkion

bost minutuko denboran. Bigarren postuan Urtzi Telleria urnietarra gelditu zen 4 jasoaldirekin. Hirurekin Unai Bertiz sunbilarra gelditu zen.

Jasoaldi zaila eta proban denetik gertatu ohi da. Marka Joseba Ostolazak jarria dauka, 13 jasoaldirekin. Duela bi urte Urrutia berak 9 lortu zituen baina iaz hiru gutxiago. Aurten Irigoienek asmatzen baldin badu, gaztearen dohaiak ikusirik, marka guztiak hausteko aukerara ere izan dezake, nahiz eta hori oso zaila izango den.

Etxauriko harriarekin zergertatzen den hilaren 29an ikusiko da.

Leitzarrik eta pilota partidak

Pilota » Oinatz Bengoetxeak bihar jokatuko du Belokirekin batera Eibarren, 17:00etan hasten den jaialdian.

A. IMAZ

Askuz Binakako Txapelketaren partida garrantzitsua jokatuko du Oinatz Bengoetxeak bihar Eibarren. Astelena pilotalekuan partida politik ikusteko aukera egongo da, izan ere, txapelketatik kanpo geratu ziren bi bikote indartsuk ere partida jokatuko dute bertan.

Bi leitzarrik bihar Eibarren

Aspe pilota enpresak antolatutako jaialdia 17:00etan hasiko da. Lehen partidari Gonzalez-Barrion eta Xala-Laskurain irtengo dira kan txara. Hauen ostean, Txapelketako lehia etorriko da, hau da, Bengoetxe VI-Beloki eta Irujo-Goñi III.aren aurkako norgehiagoka.

Bi bikoteak azken ligaxkako lehen partidari garaipena lortuta aurkitzen dira. Bigarren puntua lortzen dutenek beraz, hanka bat finalean edukiko dute.

Jaialdiko azken partidari Galarza V-Merino eta Apezetxe-Galarza VI. ariko dira.

Aurrerako pilotariak

Leitzako pilotari gazteek asteburu honetan ohi bezala partida mordo jokatuko dituzte.

Emakumea Pilotari Irekian Agirre eta Aristoren Aginagan jokatuko dute gaur 16:00etan.

Nafar Jokoen barnean, zazpi partida jokatuko dira gaur Amazabal pilotalekuan 10:00etatik aurrera.

Azkenik, Lezama, Erreka eta Berria txapelketaren ordezkari leitzarrik lehiatuko dira garu eta bihar. Errekakoen gainera, Olaneta eta Iparragirrek finala jokatuko dute gaur 11:30ean Donezteben.

Bai edo bai



» Herrira begira

Asier Arzallus
Saskibaloj jokalaria

Badie aste batzuk azken *Herrira begira* idatzi nula, ta lerro batzutan gertatu dien gauzez eta momentuko egoeraz hitzein di-zuet.

Badirudi urte guzuzin sufritzea tokatuko zaiula, ta egoera hortan ohi-ttu beharko ga demboraldiko azken bi hilabeteri aurreituko. 8 partidu gelditzen die ta sailkapen azkeneko postutan gaude.

Oso garesti jartzen ai da edozein partidu irabaztea ta hemendik aurrera ematen do zailegoa izan dela. Entrenatzaileei esate ga gustatzen zaiotan bezela, 8 final gelditzen zaizkiula esan ditteke.

Aurreneko finala asteburu honetan jokatuko du, ta hasteko ez da bate xamurre izango. Ligako liderren aurka jokatzen du bere etxean, Faymasa Palencia. Denboraldi guzuzin eztaue partidui galdu bere kantxan ta hortxe joanen ga gu jaurdunaldiko sorpresa emateko prest, ilusioa ta gogoak behintzat

etzaizkiu faltako. Pasa dien bi astetan urte guzuzin zehar itten giñunan kontrakoa in du, hau da, etxetik kanpo irabazi ta etxan galdu. Gijonen partidu bikain bat jokatuta ta 16 puntuz irabaztea lortu giñun, gaña arerio zuzenak die guretzat ta garrantzi haundie euki zun garai-penak. Beño aste bat berandugo etxan Hospitaletan kontra galdu giñun. Ligako bigarrenak die sailkapen ta partidu oso berdindu baten azken bi minututan Riazorretetik garaipena eramatea lortu zuen.

Kirol arloa alde batea utziz gaur eun krisisak saskibaloian eragiten ai den arazo larriz hitzein nahi nuke. Azken urtetan eraikuntzako enpresak zien batipat taldeei laguntza ekonomikoak ematen zizkienak, beño gaur eun arazo ekonomiko larririk diela eta laguntza hoik gero ta tiki-gokoak die ta ondorioz talde askok ezin die jokalarin soldatei aurre in. Gure ligan 2 talde desagertze ar daude arazo hauengatik eta beste ligetan ebai berdintsu daude gauzek. Espero dot denbokin gauzek hobetzen joatea bestela...

Bukatzeo pilotari buruz aipamen tiki bat. Leitzar bat dauke binakako finalen atetan, oingoan Oinatz izan da. Hemendik animo guzuzin bial nahi dizkiot ta ea beste final bat eskeintzen dion gure herri-ri.

Korrika 16ri ongi torria egiteko lanean Areso, Leitza eta Ibarra

Korrika 16 » AEKren ekimenarekin bat eginez hainbat ekimen ta batzar antolatu dituzte ondorengo egun hauetarako.

A. IMAZ

Tuteratik irtengo dira lehen korrikalariak aurtengoan, hilaren 26ean eta 2.150 kilometro egin ostean Gasteizera helduko dira azkenak, apirilaren 5ean.

AEKk antolatzen duen Korrika 16 gure eskualdeetako herrietatik era igaroko da. Gureak ere euskaraz bizi nahi duten herriak direlako, leloarekin bat eginez, *Ongi etorri* esateko prestaketa lanak ja da abian dira hainbat herritan.

Leitza eta Areso

Turandik gauza asko gelditzen baldin badira lotzeko ere, jadanik lehen egitasmoak martxan daude Leitza eta Areson. Hilaren 13an adibidez, Leitza burutzen den os-tiraleko azokan Korrikako arropa

salgai jarriko dute. Egun horretatik aurrera, Torrea Tabernan egongo da material guztia.

Aurrera begira, hilaren 26an Korrikari buruzko dokumentala ikusteko aukera egongo da Peritza Tabernan 19:30ean. Ikus-entzunezkoa Jon Maiak zuzendu duen *Bidaia Intimoak* lana izango da.

Dokumental berbera, ikusgai izanen da Areson hilaren 26an, egun berean baina ordu ezberdinean, izan ere aresoarrak 17:00etan elkartuko dira soinketa gelan.

Ibarren batzar deialdia

Korrika 16ri ongi torria egiteko asmoz ta ekimenaren inguruan ekitaldiak antolatzeko, martxoaren 10ean, asteartean, batzarra egingo dute Ibarra Benito Izagurre kultur etxean. Hitzordua 20:00etan izango da eta sustatzailek herritar guztiei bertara agertzeko deia egin diete. Horretaz gain, Korrika Tolosaldeetik apirilaren 2an pasako dela gogorarazi dute.



11°
9°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Zuhaitz landaketa herriko txokoetan

ALEGIA • Zuhaitz Eguna izan zuten atzokoan Alegian eta bertako ikasleek hainbat zuhaitz landatu zituzten herriko txoko ezberdinetan. Argazkian, Haur Hezkuntzako laugarren mailakoak basasagarrondoak landa-

tu zituzten herriaren sarreran, Kalebeheran. Anoetan ere Zuhaitz Eguna antolatuta zuten atzorako, baina eguraldia dela-eta prestaketak egin gabe zeuden eta datorren ostiralean egingo dituzte. I. GARCIA

A Agurrak



Urte askoan!

Izadi Lasa Nieto (Laskibar).
Gaur 3 urte. Etxeko guztien partetik ondo pasa eguna.



Urte askoan!

Zuraide. Zorionak Bitxarrakita. Bi besarkada ta bi muxu berezi Tolosako amonaren partetik.



Urte askoan!

Odei Jauregi Zaldúa (Tolosa).

Ondo pasa zure 3. urtebetetze festan. Zorionak aitaxo eta amatxo.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

A Agenda

Antzerkia

■ **Anoeta.** Zenbat gara antzerki taldeak *Amama Pantzikaren altxor ezkutua* antzezlan eskainiko du udaletxean 18:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Lo mejor de mi* filma emango dute Leidor aretoan 22:30ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean. eta *Txori-buruak* filma emango dute euskaraz Leidor aretoan 17:00etan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Udaberri taldearen emaldia Bonberenean 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Ospatu **V. URTEURRENA** gurekin
UROLA KOSTAKO HITZAREN ALDE
BERTSO SAIOA

AZPEITIA
MARTXOAK 14, larunbata
IZARRAITZ PILOTALEKUA
22:00



h3
zeu zara gizona,
hartu hitza



Andoni Egaña Sebastian Lizaso Jon Maia Uxue Alberdi Joan Jose Eizmendi 'Loidisaletxe' Jokin Uranga

Sareanek lortzeko: Aukaritan Zurt tabernan eta Lujan dendan, Azpeitian Ebezeru, Oikatze eta Jim Clark tabernetan, Ezeizle Borandegin, Getariako Mahasti tabernan, Zestean Koite tabernan, Zumarran Metro tabernan eta Aizpurnan Iburudendan eta HITZAREN Zorazuko eta Azpeitiko Egaztetan. Egunean bertan ikahitza emango dira salgai.

10 euro

tolosaldeko, leitzaldeko eta goierriko

ostalaritza
Gida2009



Jatetxeak, sagargotegiak, erretegiak eta pintxo tabernak biltzen dituen gidarik osatuen

..orain **tolosaldeko-hitza.info**-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatuen: argazkiak, informazio erabilgarria, iragarlearen webgunera link zuzena.

Bilatzaile erabilgarria

Hitza guztien gida **hitza.info**-n

hitza info